

TERESA EUSKARAZKO ARGITALPEN ETA ESKUISKRIBUETAN

Sarrera

Mendeurren baten gertaera, santa Teresa Jesus Haurarena edo Teresa Lisieux-koaren heriotzako hau den bezala (†1897), kontuak egiteko abagune ona izan ohi da, hau da, beraren eta berari buruz euskaraz egindako idazki eta produkzio literarioa aztertze abagune ona. Ikuspegi sozio-erlijiosotik, Teresak leku oso garrantzitsua izan du Euskal Herrian, alde batetik karmeldarrak herri honetan ongi kokaturik daudelako, baina baita, Pio X.ak deitu zionez, Garai modernoetako santarik handienaren ospe uni-bertsalagatik ere

Laster ikusiko dugunez, harenganako debozio handia, harekin erlazioa duten erakunde erlijioso ugariarekin, baita Euskal Herrian ere, ez dator bat euskaraz egindako haren idazkien edo hartaz egindako lanen produkzioarekin; eta hau lehenengoetariko kontraesana edo alde iluna da... Esaterako, haren autobiografia hura hil eta hurrengo urtean frantsesez, 1901ean ingelesez, 1902an polonieraz, 1905ean nederlandera, 1906an portugesez, 1911n gaztelaniaz eta japonieraz... argitaratzen den bitartean, euskaraz oso berandura arte, 1991ra arte, ez da argitaratuko...

Argi utzi behar da, beraz, euskaraz haren idazkien eta hari buruzko argitalpen gutxi daudela; hala ere, 1996. urte honetan, liburu bakarrean haren idazlan guztiak euskaraz argitaratzean, lehen aldiz txiki uzten ditugula hainbat eta hainbat nazio nagusi...

Baina begiratu batean horretaz ardura handirik ez dela izan badirudi ere, hainbat lan interesagarri dira, argirik ikusi ez dutenak; azterlan honetan, euskal eskuidatzi horiek ikertzeari ere ekingo diogu; hauek, bestalde, nekez argitara daitezke honezkerok, jakina, eskuidatzi hauek baino gaurkoagoak eta hobeak argitaratu ditugulako aurtan.

Hemendik atera daitezkeen ondorioak hauxe da: karmeldar idazle batzuk bai ahalegin-
du direla Lisieux-ko santaren idazkiak ezagutarazten...

I. Teresa Lisieuxkoaren idazlanak

I. Eskuizkribu autobiografikoak - Arima baten Historia.

1898an haren autobiografia frantsesez "Histoire d'un Ame" izenburuz argitaratu zenez gero, liburua mundu zabalean entzutetsu egin zen, eta izenburu horrekin gainera (gaztelaniaz "Historia de un alma", alemanieraz "Geschichte einer Seele", euskaraz "Arima baten istoria", S. Onaindiaren itzulpenean 1991n)... Azken hamarkadetan, aipatutako izenburu horrek oraindik irauten badu ere, aldatuz joan da, batez ere 1956-1957az geroztik: "Manuscrits autobiographiques" frantsesez, "Selbstbiographische Schriften" alemanieraz, "Manuscritos autobiográficos" gaztelaniaz, etab., eta euskaraz "Eskuizkribu autobiografikoak".

Bai izenburuan egindako aldaketa eta bai Santaren lehenengo testua berrezartzean egindakoa, Aita Frantzisko Santa Mariaren egindako ikerlan eta argitalpenen (1956-1957) eraginez izan dira. Idazki autobiografikoek hiru parte dituzte, bakoitza komunitateko lekaiame desberdin bati eskainia: *A* Ama Aines Jesusenari, *B* bere ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari eta *C* Ama Maria Gonzagarenari; lehen argitaraldia egin zenean (1898) hau priore zenez gero, argitalpenean liburu osoa Maria Gonzagarenari eskainia agertzen da. Horrek hainbat aldaketa txiki egitea eskatzen zuela zirudien, baina horietaz gainera, beste aldaketa batzuk ere egin zizkioten...

Euskal itzulpenak historia gorabeheratsua izan du: kanpoko eta kontrako zirkuntantziek eragotzi dute euskal argitalpenak herri-debozioaren garrari erantzutea. Oztopo-lasterketa hau bi garaitan bereizi behar dugu: gerra aurrean eta gerra ondoren.

a. "Karmengo Argia" aldizkaria eta Aita Lino - Aita Santi

- Gerra aurrean, 1928-1931. urteetan gutxi gorabehera, filosofiako ikasle gazte zirela burutu zuten Lino Akesolok eta Santi Onaindiak, *Arima baten kondaira* itzulpena, baina eskuidatzia galdu egin zen; A. Lino berak behin baino gehiagotan gogoratzen digu; 1974an honela dio: "Aita Onaindiak eta nik egiña genuen bat (eta ez guztiz gaizki) ikasle gifaneko urteetan, amaikatxo gaualdi loari kendurik Gasteizko gau otzetan. Baiña gerrateko aizeteak nonbaitera, galdu-lekuen batera, eraman zigun"; eta geroago, 1987an: "Santa Teresitaren *Arima baten kondaira* dalakoa, biok alkarrekin euskeratu genduen ogei urteren inguruan genbiltzala Gasteizko negualdi otzetan. Nik azken eskua emonda gelditu zan neure eskuzko kopia baten; baiña galdua da" (Ik. Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, I*, 621, I***, 231).

- Hirugarren kapituluak ikusiko dugunez, *Karmengo Argia* aldizkariak (1931-1936) Teresa Lisieuxkoaren bizitza eta doktrinaz idazlan labur ugari argitaratu zituen; herri-aldizkari honek 123 orrialde inguru eskaini zizkion. Zorigaitzez, 1936ko gertakari sozio-politiko larriek hiltzeko utzi zuten aldizkaria eta ezin izan zitzaion eraso *Historia de un alma* itzultzeari. Hainbat idazlanetan haren idazkietako testuak aipatzen dira; A. Santik ere *Historia de un alma* jarraituz kontatzen du haren bizitza...; (eta bera izango da autobiografia honen itzulpena burutuko duena 1991n). Euskal letretako produkzioa berehala

geldiarazia izan zen..., eta 50. hamarkadaren bigarren erdian hasiko zen berriro errautsetatik berpizten.

b. *Saio benetakoak eta geroko fruituak.*

Aipaturiko oztopo-lasterketan, honako hauek gogoratu behar ditugu: 1. eten beharra izan zen argitalpen-ahalegina. 2. Argirik ikusi ez zuten itzulpen batzuk. 3. A. Santiren argitalpena. 4. Eta 1996ko argitalpen osoa, santa Teresa Lisieux-koaren heriotzako mendurrena dela eta (1897-1997).

1) "Karmel" aldizkaria

- *Karmengo Argia* debekatua izanik, karmeldar euskaldunek aldizkariari jatraipena eman nahi izan zioten urtekari izenez: *Karmengo Amaren Egutegia* (1951); baina 1957an aldizkari normal bihurtzea erabaki zuten, urtean sei zenbaki eta bakoitzak 46 orrialde inguru zituela. Berriro ere gobernuak madarikazioa jaurti zion eta 1959an debekatua izan zen...

Hain zuzen ere garai honetan, 1957an, 2. zenbakian, 7-8. orrialdeetan hasi zen nahiko handikero *Autobiografiaren* argitalpena.; eta hurrengo zenbakian jarraitu zuen beste bi orrialde erantsiz. Baina ez zen gehiago agertu. Ez dakigu zehatz horrela bat-batean etetekeo zer arrazoi egon zitekeen.

Nondik itzuli ziren orrialde urri horiek? Ziur asko gaztelaniazko itzulpenen batetik. Kontuan izan behar da itzulpen hau 1957ko udaberrirako eginik zegoela. Frantsesezko testu autobiografikoak urte horretan bertan agertu ziren (faksimil testua 1956an). Eta 1958an argia ikusi zuen 1957ko frantsesezko argitalpen berriaren gaztelaniazko itzulpenak... *Karmel* aldizkariako euskal testua gaztelaniazko aurreko argitalpenen ohiko kapitulu eta izenburuekin hasten da... Parrafoak ere zenbakiturik daude Bartzelonako 1956ko "*Obras Completas*" argitalpenean egiten den antzera, adibidez... Hala ere, harritzekoa da forma batzuen itzulpena frantsesezko testu berritu eta 1957an argitaratuarekin bat etortzea, eta ez Bartzelonako gaztelaniazko azken itzulpenarekin: prioreari hitz egiten dionean, ez baitu hirugarren pertsona erabiltzen, Teresaren originalean bezala zuzenki bigarrena baizik: "agertzen dautsut", eta ez "agertzen eban", "jarriko zara" eta ez "jarriko da", "ez al zeunstan" eta ez

"ez al eban", etab.... Jakina, hau euskaraz "berori" tratamendua kasu bakan batzuetan soilik erabiltzen delako izan daiteke...

Aldizkarira bidalitako zatietan ez da itzultzailearen izenik ageri, baina Markinan gordetzen den testu osotik ateratzen denez, oraintxe hartaz hitz egingo dugularik, egilea Aita Honorio dela badakigu.

2) *Euskal itzulpen batzuk.*

a. *A. Honorio.*

- A. Honorio Jesus Haurrena (Gregorio Gerenabarrena Agirrebengoa, Gereako Munoki baserrian jaioa, Mallabiko udalerrian, 1912-1992), Markinako komentuan bizi izan zen urte askotan (1954-1992), organogile legez oso ospetsu bihurturik (*Vínculo*,

1992,146.zk., 52-54; BOPSJN, 1993,101.zk.,169-173). Teresaren autobiografia osorik itzulita utzi zigun, *Teresatxo deunaren bizitza* izenburuz; darabilen euskara bizkaiera da. Markinako Karmeldarren artxiboan kopia batzuk daude koadernaturik. Liburukiak (28'5 x 20'5 cm) IV + 175 orr. ditu. Eta hainbat itzulpen-argitalpenetan ohi zenez, lana 12 kapitulutan banaturik dago.

Argi dagoela dirudi A. Honoriok argitara emateko asmoz prestatu zuela testua. Testuan zehar han eta hemen A. Lino Akesolo euskaralogo ezagunak lapitzez egindako zuzenketa eta orrazketa ugari ageri dira. Ez dakigu zehatz-mehatz noiz itzulia izan zen; 1957-1958 inguruan izan daitekeela uste dugu (?).

b. A. *Sebastián*.

A. Sebastian San Justorena (Justo Atutxa, Lemoako semea, 1909-1964), Altzoko komentukoa bere bizitzako azken urteetan (1954-1964). Hil baino urtebete lehenago *Historia de un alma* euskarara itzultzen hasi zelako berriak ditugu, baina heriotzak eragotzi zion, nahiko gazterik eraman zigularik (BOPSJN (1964, 58.zk., 115-117)... Amaitu gabeko kopiaren bildukina zen paper batean, makinaz idatzirik, A. Lino Akesoloren oharra ageri da: "Traducción del P. Sebastián (q..e.p.d.)". A. Lino berak argi hitz egiten du A. Sebastianen itzulpen-lanari buruz: "Azkenez, aita Sebastian Atutxa zanak ekin zion lan berari, ain zuzen Altzon bertan; eriotzak etzion lana bukatzen utzi" (L. AKESOLO, *Idazlan guztiak*, I, 621).

Eskuz eta makinaz idatzitako paperak dira, Teresaren idazki autobiografikoei buruzkoak, eta baita *Azken Elkarrizketak* delakoari buruzko eskuidatziak ere.

Baina une honetan Eskuizkribu autobiografikoak edo Arima baten historia da aztertzea dagokiguna. Ezagutzen ditugun paperetatik atera dezakegunez, beharbada A. Sebastianek *Historia de un alma* burutua izan zezakeela dirudi, edota behintzat gaur egun ezagutzen duguna baino gehiago itzuliko zuela; makinaz idatzitako folioetatik eta orain geure esku ditugunetatik 1. kapitulua, 8.a eta 11.aren amaiera bakarrik falta baitira. Kapituluetan egindako sailkapen hauek *Historia de un alma* delakoaren argitalpen desberdinetan erabili ohi diren sailkapenei dagozkie. Eta oraindik zatikatuago eta puska gehiagotan gelditu zaizkigu Teresaren autobiografia honi dagozkion A. Sebastianen eskuz idatzitako zirriborroak.

Gipuzkerazko itzulpena da... A. Sebastianek, Altzon bizi izanik, ongi menderatu zuen euskalki hori; behin, txantxetan-benetan, gipuzkoar sermolaririk onenari euskalki horretan zeinek hobeki hitz egin erronka botatzeraino...

Une batean izan genituen geure zalantzak itzulpen autografo hauen egilea nor izan zitekeen: autografo hauek Gasteizko Karmeldarren Artxibo Probintzian daude, A. Eustasioren gauzak dauden kutxan (Inacio Berakoetxea, Bilbon jaioa 1906an, baina izatez Altzokoa; 1983an hil zen, A. Sebastian bezala, Altzoko komentukoa zela). Horrek sortu zigun zalantza txiki bat. Baina artxibo horretako paperak eta bataren eta bestearen, A. Sebastian eta A. Eustasioren, datu kronologikoak aztertu ondoren, garbi atera daiteke Teresaren itzulpeneko paperak A. Sebastianenak direla.

c. *Izengabekoa.*

A. Linok eskuizkribu bat zuen, hau da, 32 folio txikiko lan bat (16'2 x 22'5 cm) grataturik eta makinaz idatzirik; *Historia de un almaren* lehen orrialdeak dira, bizkaieraz idatzirik. Bai papera eta bai grafia antzinakoak direla dirudi, hau da, gerra aurrekoaren antza du: *l* eta *r* gangardunak (*rr* eta *ll*ren baliokideak), Keliñe, yoako..., egia esan, gerra ondoren ere erabili izan ziren grafia horiek hainbat urtetan...

Itzulitako testua ohiko argitalpen ezagunetako lehen bi kapituluei dagokiena da, hau da, frantsesezko eskuidatzi originalaren lehen 21 folioei dagokiena.

d. *A. Nartziso.*

A. Nartziso Aingeruena (Jose Antonio Garate Mugica, Azkoitiko semea, 1900-1974). Bere bizitzako azken urteak Alizon eman zituen honek ere (1963-1974) (BOPSJN, 1974, 82.zk., 532-534). Eta hain zuzen ere hementxe itzuliko ditu Teresaren idazki autobiografikoak gipuzkerara.

A. Nartzisok, aurreko itzultzaileek egin ez zutena, A. François-en frantsesezko testu original berrezarritakotik euskaratzen du, hau hasi baitzen "*Manuscrits autobiographiques*" izenburua erabiltzen "*Histoire d'une Ame*"ren ordez.

A. Nartzisoren lana handia izan zen, baita bere testua hobetzeko egin zuen ahalegina ere... Izan ere, hiru idazketa desberdin (edo makinaz egindako kopia) ezagutzen ditugu; eta azkenengo eta behin-betiko idazketaz hiru kopia ezagutzen ditugu, hauek ere esku desberdinek egindako hainbat ukitu eta zuzenketa dituztelarik. Zuzentzaile nagusia, hala ere, A. Lino Akesolo izan zen.

Makinaz idatziak diren azken hiru kopia hauetan (eskuizatziak 197 folio ditu, 31'5 x 21'5 cm) izenburu hau dator: "JESUS AURRAREN TERESA DONEA: *Eskuidatzi Autobiografikoak (Anima baten Kondaira)*". Kopietariko batean, izenaren eta izenburuaren artean A. Lino hau tartekatu zuen eskuz: "Bere bizitzaren berri emanaz Teresak idatzitako iru eskutitz euskeraz jarrita"; eta beste kopia batean hau tartekatu zuen "Bere bizitzaren berri emanaz Teresak idatzitako eskutitzak", izenburuaren ondoren hauxe gehiturik: "Aingeruen Narkis Aita Karmeldarrak (Jose Antonio Garatek) euskeratuta".

Lan honetan A. Lino berak lagundu zion pixka bat, horren lekukotasuna ematen baitu berak honela: "Bertsozko zati batzuetako bakarrik eskatu zuen laguntza, eta nik ere nere alegintxoan egin nuen Teresa doneak tartean sartzen dituen bertso batzuk euskeratzen" (Lino AKESOLO: *Idazlan guztiak*, I, 621).

Itzulpen hau dela dirudi ordurarte egindako guztietatik onena. Honen kalitateaz Lino Akesolo euskaralagoaren iritzia jakingarria da: "Gure aita onek gutxi bezela ezagutzen baizituen eskeraren korapilloak, baiña etzigan artean erakutsi aundirik eman. Bere karguek nonbait etzioten astirik utzi idazte-lanerako. Ezer egitekotan, ori bai, jakifia zan etzuela ala-ola idatziko. Euskera errez, errikoi, garbi jatorrez idatziko zuen. Ainbat euskal-liburuk eta ainbat itzulpenek, batez ere, etzioten bat ere gogorik betetzen; erderari lotuegi arkitzen zituen eta erdal-kutsuz gainiezka. Erizmen zorrotzekoa zan ortan. Zorre-

tan zegoen gurekin eta euskerarekin. Nolabait erakutsi bear zuen bere iritzia egiztatzeko gai zala. Eta uste genduena, euskal-maisu bati zegokiona atera zitzaion bere itzulpena”.

e. A. Santiago.

Hain ezaguna eta oraintsu zendua den A. Santi (Santi Onaindia, Amorotoko semea, 1909-1996), izan da, beste gai batzuetan bezala Teresaren gai honetan ere, lanik handiena burutu duena eta adore handiz hainbeste argitalpen egin dituena. Jadanik aipatua dugu nola itzuli zuen A. Linoren laguntzaz, Gasteizen filosofiako ikasle zirela, 20 urte inguru zituztenean, Teresaxoren autobiografia osoa... Hain garai larriak zirenez gero, gerratea eta gerra ostea, lanak argirik ez zezala ikus eta gal zedila nahi izan zuen halabeharrik... Aita Santik berak hainbeste idazlan idatzi zituen gerra aurretik Teresaxori buruz, gero ikusiko dugunez.

Oso berandu, orain dela urte gutxi, bere azkenengoetariko liburu gisa, ekin zion Teresaren Autobiografia itzultzeko lanari. Langile aspergaitza, oso astiro entzuten zitzaien guztia beharreko idazmakinare triki-traka... Eta guri ezer esan gabe inprimategira eramane zuen... Haren begiak ez zeuden behar bezain argi inprimategiko probak egoki zuzentzeko... Behin, azken proba zuzenduak, behin-betikoak inprimategira bidaliko zituela adierazi zuen... A. Andoni Oleak, Larreako komunitate berean lagun eta Lisieux-ko Teresaren gaietan gutxi bezalako maisua denak, itzulpena pixka bat ikusteko eman ziezaiola eskatu zion.... A. Santi hartara jarri zen, baina bere baikortasunean ez zuen uste, kontizu, akatsik izango zuenik eta, biharamunerarteko epea eman zion soilik. Biharamunean inprimategira bidaliko zuela behin-betiko. A. Andonik arratsaldeko eta gaueko hainbat ordu eman zituen lana aztertzen, inprimategiko hainbat huts eta bestelako huts larri batzuk ere zuzenduz... Eta A. Andonik hobeki zuzentzeko asti luzeagoa nahi bazuen ere, ezinezkoa gertatu zitzaion.

318 orrialdeko liburua bizkaieraz idatzirik 1991n argitaratu zen: “LISIEUX-KO TERESA, *Arima baten istoria*”... Itzulpena idazki autobiografikoei dagokiena da, hiru idazki autobiografikotan banaturik, bakoitza lekaike desberdin bati eskainia..., baina, bestalde, gaztelaniazko itzulpenen tradizioari jarraitzen dio, testua kapitulutan bereizirik, hatetako estiloari men eginez... etab.; zehazki esateko, *Historia de un alma (Espiritualidad, Madrid 1976)* gaztelaniazko itzulpenari jarraitzen dio.

Itzulpena ez zitzaion batere gogoko izan zenbait aditu eta Teresaren testuak sakonki ezagutzen dituztenei, hauen artean A. Lino Akesolo eta A. Andoni Oleari... Azken honek, gauzak beren puntuan jarri nahirik, kritika serio bat idatzi zuen *Karmel* aldizkarian (1991-3, 55-67) A. Santiren euskal itzulpenari buruz: aintzat hartzen zituen ongi itzulitako testu batzuk, baita argitan jarri ere itzulpeneko hainbat huts, zentzu okerra emanez aldatutako hainbat testu, originalean dauden eta itzuli gabe gelditu diren esaldiak, inprimategiko hutsak, etab. Kritika objektiboa eta aberasgarria. Hala ere, idazlanaren lehen orrialdean bere poza agertzen zuen honela: “Ainbat eta ainbat izkuntzetara itzulitako liburu zoragarri au, ia eun urte egon da euskeratu barik. Ta eskerrak Aita Onaindia langille nekazifari, emendik aurrera, teresitaren paregabeko mezua euskeraz dastatu geinke. Euskera ederrean gozatu geinkez monja gazte onen esperientzi sakon eta zirraragarriak”.

2. Olerkiak

Teresa Lisieux-koaren olerkiek ez zuten haren Autobiografiak bezain interes bizirik sortu eta, beraz, ez zen euskarara itzultzeko ahalegin handirik ere nabari... Horrela, gerra aurretik bi olerki agertu ziren euskarara itzulirik *Karmengo Argia* aldizkarian: lehenengoa, 1934an, A. P. Bizente Batizena zen, Hegoamerikan aurkitzen zen karmeldar gaztearena: *Aingeru zaindariari otoitza*; Teresaren 46. olerkiaren Ichen ahapaldiari dagokion itzulpen libre samarra da. Bigarren olerkiaren itzulpena, 1936koa, Sabin Gerrikaetxebarria karmeldar ikasle gazteak egin da: *Gaurko nire abestia*.

Dena dela, batez ere azken urteotan da Santaren olerkien interesa gora eta gora joan denekoa lurralde desberdinetan, eta hain zuzen ere haren doktrinari eta haren irrika eta esperientzia izpiritualeri begira... Hau Euskal Herrian ere antzeman daiteke, Teresaren olerkien itzulpen oso eta guztiz ezberdinak burutu baitira azken urteotan.

a. Santi Onaindiak "*Arima baten istoria*" itzuli ondoren, Andoni Oleak eta Julen Urkizak gogoan beroturik, Teresaren olerkiak itzultzeari ekin zion. 83 urteko adin handiak nekagarri biurtzen zion zenbait zailtasuni aurre egitea; makinaz idaztea bera ere geroago eta neketsuago egiten zitzaion... Hala ere langile saiatu eta aspergaitz honek 1993rako itzulirik zeuzkan. 55 olerki dira; baina ez zituen itzuli eranskineko zortzi olerkiak.

Ez dira argitaratu...

b. Azkenengo itzultzailea Luis Baraiazarra izan da. Geroxeago aipatuko dugunez, Teresaren idazlan guztiak argitaratzeko gure asmoen barruan, olerkiak itzultzea eskatu zitzaion. Luisek gogotsu eta pozik lan egin zuen itzulpen honetan; eta 1995erako amaiturik zituen. 63 olerki dira, haietariko sei *Karmel* aldizkariaren azken zenbakietan jadanik argitaratuak izan direlarik.

Itzulpenean beti gogoan izan den arau nagusia testu originalarekiko zehaztasuna izan da, baita estilo artistikoa euskaraz gauzatzea ere; horregatik, hasteko, ahapaldi bakoitzaren silaba-berdintasuna eta errimak edo hoskidetasuna zaindu behararen zama alde batera utzi izan da, zehaztasunaren eta estiloaren mesedetan; dena dela, horri loturik egon gabe ere, bi alde estilistiko horietatik albait hurbilen ibiltzeko ahalegina nabari da itzultzailearengan. Itzulpen oso ona da, irakurleak erraz antzeman dezakeenez.

3. Azken Elkarrizketak

Idazki hau "*Novissima Verba*" izenez ezagutzen da tradizioz. 1898ko *Histoire d'une Ameren* lehen argitaraldian, XII. kapituluari, idazki honen atal batzuk agertzen ziren, Aines Jesusenarenak gehien bat. Baina 1927an argitaratu zuen Ama Ainesek osorik liburuxko batean: "*Novissima Verba, Derniers Entretiens de Sr Thérèse de l'Enfant-Jésus, Mai-Septembre 1897*", arrakasta handia izanik.

Alde guztietan nabari zen gogo horren eraginez, A. Sebastianek euskarara itzultzeari ekin zion. Altzon bizi zela idatzi zuen (1954-1964), ziur aski bere bizitzako azken urtean.

Behintzat koaderno batzuk utzi zizkigun: Zirriborro gisa eskuz idatzitako hiru koaderno dira (32'5 x 22 cm) guztitara 75 orrialde idatzirik dituztenak eta Ama Ainesen idazkiari dagozkionak.

Beste koaderno bat ere badugu (35'5 x 26'5 cm), 13 orrialde idatzirik dituena.

Bada beste koaderno bat ere Gasteizko Karmeldarren probintziako artxiboan: *Azken Elkarrizketak* idazkia da, Teresaren ahizpa Zelinarena. Koadernoak (19'5 x 13'5 cm) 60 orrialde txiki ditu idatzirik.

Itzulpen-lan eskerga hauek gorabehera, lana argitaratu gabe geratu zen artxiboetan bazterturik...

Teresa Lisieux-koaren gainerako idazkiei dagokionez, euskaraz ez da ezer egin, hau da, *Gutunak, Deboziazko Solas-Antzerkiak, Otoitzak* oraintxe arte ukitu gabe gelditu dira.

II. Teresaren *Idazlan guztiak* euskaraz, 1996

Teresa Lisieux-koaren heriotzako mendeurrena hurbiltzean (1897-1997) *Karmel* aldizkariak, hau da, hango arduradun eta idazleek urrats garrantzitsu bat ematea erabaki zuten misioetako zaindariari buruz Euskal Herriari dagokionez, eta mendeurrena dela eta egiteko ginen beste argitalpen eta ekintzen artean, Teresaren idazlanen argitalpen bikain bat egitea erabaki genuen. Urte gutxi lehenago, 1992an, Éditions du CERF / Desclée de Brouwer-en "*Œuvres complètes. (Textes et Dernières Paroles)*" agertu zen, 1599 orrialdeko (19'5 x 13'5 cm) liburu eder-eder bat. Guk Cerf / Desclée de Brouwer-en argitalpenari, frantsesezko argitalpen honetatik euskal itzulpena egiteko beharrezko baimena eskatu genien.

Karmel aldizkariaren zenbaki bereziaren zirriborroak idazten ari garen bitartean, argitalpen handiaren lanak ere burutuz doaz..., bi argitalpenak ia batera agertzen direlarik.

Lan handi hau Julen Urkiza eta Andoni Olearen zuzendaritzapean egin izan da. Itzultze lanik garrantzitsuena Luis Baraiazarrak burutu du, ez itzuli dituen bi obregatik soilik, gainerako testu guztiak ere berak aztertu eta zuzendu dituelako baizik, obra osoari estilo aldetik nolabaiteko batasuna emanez; hala ere, jakina denez, estilo ezberdinak erraz nabari dira, itzultzaile bakoitzaren nortasun literario bereziarengatik.

Liburu honen itzulpen-lanek urtebeteko iraupena izan dute eta talde-lanean eginak izan dira. Ondorengo ferretan zehazten da taldekide bakoitzak egin duena:

Itzultzaileak:

-Luis Baraiazarra: *Eskuizkribu autobiografikoak eta Olerkiak* (63 olerki).

-Ana Urkiza: *Gutunak* (266 gutun) eta dagozkien oharrak.

-Pierre Charriton: *Deboziozko solas-antzerkiak* (8 pieza) izeneko atalaren buru izan da, pieza haiei dagozkien sarrera txikien eta oharren itzulpena egin duelarik. Ondorengo hauek dira atal honetako testuen itzultzaileak: Jean Challet (*Joana Ark-ekoaren misio-nea*), Angèle Teillerie (*Aingeruak Jesusen sehaskan, Joana Ark-ekoak bere misio-nea betetzen eta Jesus Betanian*), Marie Jeanne Minaberry (*Eguberriko Jainko-Haur tipi eskelaria karmelitetan eske*), Jeanne Marie Malharin: *Egiptorat ihes, Apaltasuna garaile eta Stanislas Kostka saindua*.

-Luis Arostegi: *Otoitzak* eta Santaren obra desberdinetarako eginiko sarrerak.

-Patxi Uribarren: *Azken Elkarrizketak*, (eta gainera *Aurkezpena eta Hitzaurrea*).

-Michel Itzaina: *Bestelako idazkiak*.

-Anjel Lobera: Liburuko ohar gehienak, gorago beren-beregi adierazitakoak izan ezik, eta eranskirik gehienak. Era berean alde tekniko-informatikoa bere gain izan du.

Bateratzailea: Luis Baraiazarrak, gorago aipaturiko itzulpen ugarietz gainera, lanaren euskarazko itzulpenen hizkuntz alorra berrikusi du, askoren artean eginiko itzulpenei nola-baiteko batasuna ematearren. Alabaina, Iparraldekoek itzulitako testuak, *Deboziozko solas-antzerkiak* eta *Bestelako idazkiak*, hain dira bereziak bai joskera, bai forma nahiz lexiko aldetik, non ez baitzaie egin, Hegoaldeko irakurleei begira, behar-beharrezkotzat jo diren ukituak baizik. Xabier Kaltzakortak egin ditu Iparraldekoen testu hauen orrazketa eta bateratzeko ukitu txikiak.

Zuzendariak: Azkenik, esan beharra dago Julen Urkiza eta Antonio Olea Karmeldarrek izan dutela lanaren zuzendaritza-ardura: lanak ordenatzeaz gainera, biek goitik behera irakurri eta zuzendu dituzte oso-osoan, frantsesezko testuari jarraituz itzulpenen egokitasuna zainduz. Era berean, hainbatetan berregin behar izan dute eranskinen atala, hala nola, *Izenen Aurkibidea*, etab.

Eskerrak eman behar dizkigu, era berean, zerbaitetan laguntza eman digun Bego Montoriori.

Ibilaldi historiografiko honetan ikusi dugunez, behin eta berriro horretan saiatu arren, dena delako arrazoiengatik, Teresatxoaren euskal itzulpenak beste hizkuntza askoren ondoan nahiko atzetik ibili dira...; hala ere orain, 1996ko urte honetan, nazio handi eta txikiak hizkuntza gutxi dira Teresaren frantsesezko berraztertutako azken edizio bikainetik itzultzean guk emandako urrats garrantzitsu hau eman dutenak... Beraz, 1996ko urte honetan, euskara hizkuntza bakan batzuekin nazioen buru-buruan jartzen da, Teresa Lisieux-koaren itzulpenei dagokienez.

III. Euskarazko itzulpenen azterketa eta erkaketa

Ia ez dela zilegi, esango genuke, aipatu berri ditugun itzulpenak eta *Idazlan Guztiak* libururako egindakoa erkatzea edo parekatzea. Izan ere, haiek gure aurreko belaunaldiko idazleek eginak ziren eta haien garaitik hona euskarak bilakaera luzea izan du, bitartean euskara batua ere sortu da, testu zaharrak inoiz baino zehatzago ikertzen dira, euskalki nagusietako idazlerik funtsezkoenak aztertzen dira, Euskaltzaindiaren gomendio edo arau gaurkotuak ezagutzen dira...; hau guztiau izan dugu geure alde... eta gainera, itzulpen berri hau egiterakoan, aurreko haien altxorra eskumenean izan genezakeen, haiez baliatu nahi izanez gero. Jakina, horrek baditu bere arriskuak eta handienetarikoa hauxe: inoren uretan sartu eta norbere burua haren korronteak eramaten uztea. Hau da, bakoitzak bere estiloa eta sortze-lana (itzulpenetan ere benetako sortze-lana egin behar baita) bertan behera uztea, errazenera jartzeko. Olerkietan, aurrekoetatik eredu bakar bat baizik ez dugu izan, A.Santi Onaindiarena; baina eskuidatzi autobiografikoetan baziren lau eredu edo, besteak beste, A. Santi Onaindia berarena.

Eskuizkribu autobiografiakoak

Itzulpen honetarako, frantseseko originala, gaztelaniazko itzulpena eta euskarazko bi bertsio ezberdin izan ditugu aurrean: A. Santi Onaindiarena, eta A. Nartziso Garaterena. Gurean gurutza ez zitezen, tentu handiz eta kontuz jo dugula haiengana esan behar.

Teresa Lisieux-koaren testua ez da zail-zaila itzultzeko, baina ez errazenetarikoak ere. Baditu zenbait puntu korapilatsu. Hauen artean, esaldi kausalak, eta batez ere erlatibozkoak eta kontsekutiboak. Itzultzaileen artean, horrelako kasuetan, joera ezberdinak nabari dira: *zeinen, hain... non (ezen), zeren eta..., bait...* Gure befaunaldiko hegoaldeko askok ez dute forma hauetara jo nahi izaten, ezinbestean ez bada... Esaldi aurreko partikula, juntagailu, aurrizki etab. ez omen dira gureak; gureak posposizio formakoak omen dira soilik. Baina esaldia luzea denean, oso ilun gelditzeko arriskua dago, aurrez horrelako partikula batez egoki iragarria ez denean. Dena dela, joera batekoa nahiz bestekoa izan, euskara ongi menderatzean dago gakoa. Hala balitz, horrelako partikulak erabili gabe edota gutxi erabilia ere, oso dotore idatz badaiteke.

Jar ditzagun Teresaren pasarte batzuk eta horien itzulpen ezberdinak:

“je m'etonçais en Le voyant prodiguer des faveurs extraordinaires aux Saints qui l'avaient offensé, comme S^t Paul, S^t Augustin et qu'il forçait pour ainsi dire à recevoir ses grâces ou bien en lisant la vie de Saints que Notre Seigneur s'est plu à caresser du berceau à la tombe, sans laisser sur leur passage aucun obstacle qui les empêchât de s'élever vers Lui et prévenant ces âmes de telles faveurs qu'elles ne pouvaient ternir l'éclat immaculé de leur robe baptismale”...- (A Esk. 2^o).

“Arriturik geratzen nintzan, Paulo ta Agustín bezela, pekatari izandako santu batzuei Jainkoak egiten zizkien mesede bikaiñak ikusirik, bere graziak artzera beartu-edo egiten

zituala ematen baidu. Beste santu batzuen bizitzak irakurtzean, berriz, ikusten nuan Jainkoak maiteki zaintzen zituala seaskatik illobira bitarte guztian, beragana joateko eragozpen izango zitzaieken edozer bidetik kentzen ziela; eta aldeiz aurretik, grazi ugariz gerta oi zituala, bataioan artutako grazi-jantziaren argitasun orbangabea illundu gabe gorde zezaten” (Nartziso Garate)

“Arriturik nengoan, egon be, Bera iraindu eben santuai, San Pablo ta San Agustin Iakoai, bere grazi aundiak emoten ikusirik, Berak, olan esateko, artu eraginda lez; edo baita, santuen bizitzak irakurrita, Gure Jaunak berak, arima batzuk kumatik illobira losingatzea eder jakola erakutsiz, Beragana igon al izateko bidean zoztorrik itxi bage eta arima onei fabore aundiakaz aurea arturik, bateo-jantziaren zuritasun aratza loitu ez egen” (Santi Onaindia)

“harritu egin naiz bera iraindu zuten santuei mesede bereziak egiten ikusiz, esaterako, San Paulori, San Augustini eta, nolabait esateko, bere graziak hartzera behartu egiten zituela ikusiz; edota santuen bizitzak irakurtzean, Gure Jaunak sehaskatik hifobiraino laz-tanki hartu dituenak, haien bidean beragana igotzea eragotz dezakeen ezer utzi gabe, mesede horiekin aurre harturik beren bataio-jantziaren distira aratza orbandu ez dezaten” (Luis Baraiazarra)

“*Pour le petit furet on ne sait pas trop comment ça fera, c'est si petit, si étourdi*” (A Esk. 7^a).

“Lepatxuri txikiari dagokionez, ez jakin zer aterako dan; ain da txikia ta zorabiatua!” (Nartziso Garate)

“Untxarta, ez dakigu zer izango dan, ain txikia da, ain urduria!” (Santi Onaindia)

“Hudotxoari dagokionez, oraindik ez dakigu zer izango den, hain txikia, hain nahasitxoa da!” (Luis Baraiazarra)

“*Quelle joie de me voir en voyage seule avec Maman!... Cependant je ne sais plus pourquoi je me suis mise à pleurer et cette pauvre petite Mère n'a pu présenter à ma tante du Mans qu'un vilain petit laideron tout rouge des larmes qu'il avait répandues en chemin...*” (A Esk. 7¹).

“Nere pozaren aundia amarekin bakarrik joatean!... Gero, ordea, ez dakit zergatik negarrari eman nion, ta amatxo gaixoak, nere Mans'eko isebari ezin izan zion erakutsi, bidean egindako negarrakaitik gorri-gorri zegoan neskatilla itsusi, aspergari bat besterik” (Nartziso Garate)

“Poz aundia benetan amagaz bakarrik osteria egitea!... Bat-batean, ez dakit zergaitik, negarrari emon neutsan, eta nire amatxo gaixoak ezin izan eutsan aurkeztu Mans-ko nire izekoari, joan-etorri bitartean negar eta negar gorri aurkitzen zan neskatil eragin dotore bat baiño” (Santi Onaindia)

“Hura poza bidaia egiten amarekin bakarrik neure burua ikustean!... Hala ere gehiago ez dakit ezer, negarrari eman nion, eta gure amatxo gaixoak Le Mans-ko gure izebari ezin izan zion agertu bidean negar eta negar eginez aurpegia gorritutako umekondo itsusi bat baizik...” (Luis Baraiazarra)

“*‘Je choisis tout!’ et je pris la corbeille sans autre cérémonie, les témoins de la scène trouvèrent la chose très juste, Céline elle-même ne songea pas à s’en plaindre (d’ailleurs elle ne manquait pas de jouets, son parrain la comblait de cadeaux et Louise trouvait moyen de lui procurer tout ce qu’elle désirait)’*” (A Esk. 10^a).

“*nik dana aukeratzen det*”, esanaz, besterik gabe, saskitxo a artu nuan barruan zeukan guztiakin. Ongi egindakotzat artu zuten begira zeuden guztiak, eta Zelina berari ere etzizaion gogoratu ezer esaterik. Izan ere, arek etzeukan jostailu aien bearrizanik, aski bai-zeuzkan, aitabitxiak emanda, eta Luisak asmatzen zun aren ania egiten, gauza guztietan” (Nartziso Garate)

“*nik dana artzen dot*” eta beste zeremoni barik zimera osoa artu neban; ango testiguak bidezkotzat ikusi eben gauzea. Zelinak berak be ez eban erakutsi naigaberik (arek ba eukan-eta naiko jostailu, bere aitabitxiak ain zuzen be erregaluz bete oi eban eta Luisak nai eban guztia eskuratzen alegintzen zan)” (Santi Onaindia)

“*Nik dena hautatzen dut!*” eta beste koplarij egin gabe, otarrea hartu nuen. Gertakariaren lekukoek bidezkotzat jo zuten gauza hori. Zelinak berak ere ez zuen kexatzeko zerik erakutsi (beste aldetik hari ez zitzaion jostailurik falta, aitabitxiak opariz betetzen zuen, eta Luisak harentzat nahi zuen guztia lortzeko modua egiten zuen)” (Luis Baraiazarra)

“*Ceci ne plaisait pas à la petite Thérèse mais elle se gardait bien d’en rien dire, ayant pris la bonne habitude de ne se plaindre jamais, même quand on lui enlevait ce qui était à elle, ou bien lorsqu’elle était accusée injustement elle préférait se taire et ne pas s’excuser, ceci n’était point mérite de sa part, mais vertu naturelle...*” (A Esk. 11^a).

“Orixe etzuan bere gustoko Teresak, baña etzian inoiz ezer esaten; olakoetan txitik ez ateratzeko oitura artuta zeukalako. Naiz beretik zerbait artzen bazioten, naiz egia etzan zer txarren bat ezartzen, naiago izaten zuan ixillik egon bere burua zuritzen aritu baño. Orretan etzuan, noski, irabazirik, orrela egitea berezko onbidea zualako” (Nartziso Garate)

“Au ez jakon gogoko Teresaxori, baiña ez eban ezer esaten, ezegaitik ez naigabetzen oitua zalako, ezta bere zerbait artzen eutsoenean be, edo entu barik salatua zanean; gurago eban ixillik egon ezer esateke; au etzan beretzat on-egia, berezko birtutea baiño” (Santi Onaindia)

“Hau ez zuen gogoko Teresaxok, baina kontu handia izaten zuen ezer ez esateko; sekula ez kexatzeko oitura ona zuen, ezta berea zuena kentzen ziotenean edota zuzengabeki salatua zenean ere; berak nahiago zuen isilik egotea eta bere burua ez zuritzea; hau ez zuen bere meritua, berezko bertutea baizik...” (Luis Baraiazarra)

“*De même que les fleurs du printemps commencent à germer sous la neige et s’épanouissent aux premiers rayons du Soleil, ainsi la petite fleur dont j’écris les souvenirs a-t-elle dû passer par l’hiver de l’épreuve...*” (A Esk. 12^a).

“Udaberriko lorak elurpean emamindu ta gero eguzkiaren len-printzen indarrez zabaldu oi diran bezela, alantxe, bere oroipenak esaten ari naizen, loratxo onek ere naigabeko uegua igaro bear izan zuan” (Nartziso Garate)

“Udabarriko lorak be ermeten asten dira edurpean eta eguzkiaren lenengo izpiakaz zabal-tzen dira, orrelaxe nik idazten dodazan gomutakien loratxoak be, proba edo azterketen negua igaro bear izan eban” (Santi Onaindia)

“Udaberriko loreak elurpean ninikatzen eta eguzkiaren lehen printzatan zabalitzen dire-nez, era berean haren oroitzapenak idazten ditudan loretxoak ere probaren negua igaro beharra izan du...” (Luis Baraiazarra)

“Tout ceci ne dura qu’un instant, mais se grava si profondément en mon cœur qu’aujourd’hui après 15 ans... le souvenir m’en est aussi présent que si la vision était encore devant mes yeux...” (A Esk. 20^a).

“Danau unetxo batean igaro zan arren, nere biotzean sakonkiro irarrita geratu zan. Gaur bertan, amabost urte geroago, ikuskizun aren oroitzapena, oraintxe begien aurrean baneu-ka bezin bizikiro daramat neregan” (Nartziso Garate)

“Guzti au unetxo batekoa izan zan, baiña nire biotzean barru be barru josirik geratu zan ezkeron, gaur be, 15 urte geroago... aurre-aurrean dot ikuskari ori oraïndik begi aurrean ba`neuka lez” (Santi Onaindia)

“Honck guztiak une bat baizik ez zuen iraun, baina oraïndik gaur, hamabost urte geroago, oroitzapena gogo-gogoan dut, ikuskaria neure begien aurrean banu bezala, hain sakon grabatu zitzaïdan neure bihotzean!... (Luis Baraiazarra)

“après une agréable promenade de quelques minutes, ayant savouré les délices de marcher sans y voir, les deux petites étourdies tombèrent ensemble sur des caisses posées à la porte d’un magasin, ou plutôt elles firent tomber ces dernières, le marchand sortit tout en colère pour relever sa marchandise, les deux aveugles volontaires s’étaient bien relevées toutes seules et marchaient à grands pas, les yeux grands ouverts, écoutant les justes reproches de Jeanne qui était aussi fâchée que le marchand!...” (A Esk. 23^a).

“Ezer ikusi gabe ibiltzeak duan atsegiña gozatuz miñuto batzuk ibilli ondoren, bi itsu txiki urdurikatuak batera denda bateko ateondoan zegoan kaja pillo baten gañera erori eta danak lurrera bota zituzten. Asarre bizi-bizian atera zan dendaria bere kajak jasotzera eta itsuarena egiten ari ziranak etzuten izan iñork jaso bearrik. Aisa alde egin zuten andik, begiak zabalik asko zituztela, eta dendaria bezin asarratua zegoan Juanaren errietak entzuten!...” (Nartziso Garate)

“minutu gitxiko ibilte gozatsu ondoren, itsu antzera ibilteak dakazan gozotasunak iruntsi ondoren, txiki biak, balditurik, batera jausi ziran denda baten atean egozan kaja batzuen gañera, edo obeto, eurak jausi-eragin eutsen. Suminduta urten eban dendariak bere salgei ta merkantziak batzeko. Naiezko itsu biak bakarrik jagi ziran eta urrats onean joiazan, ondo zabalik begiak, Joanaren esanak, dendaria baizen asarre zanarenak entzunaz...” (Santi Onaindia)

“Minutu batzuetako ibilaldi atsegina egin ondoren, ezer ikusi gabe ibiltzearen gozoa dastatuz, bi txiki durdurikatuak denda baten ate aurrean zeuden kaja batzuen gainera erori ziren biak batera, edo hobeki esan, beraiek erorarazi zituzten azken hauek. Dendaria haserre bizitan irten zen bere merkantzia jasotzera. Borondatezko bi itsuak bakarrik ere

ongi jaikita zeuden eta erpajorran ihes egin zuten begiak *ongi irekita*, dendaria bezain haserre zen Joanaren arrazoizko agirikak entzunez..." (Luis Baraiazarra)

"j'étais faible, si faible que je regarde comme une grande grâce d'avoir pu supporter une épreuve qui semblait être bien audessus de mes forces!..." (A Esk. 25^a).

"Argala nintzan ni, oso argala, izan ere, eta orrogatik Jaungoikoaren esker aunditzat daukat, nere indarren gaitetikoa zirudian tentaldi ura jasan al izana". (Nartziso Garate)

"aula nintzan, oso aula eta grazi aunditzat daukat neure indarren gaitetik egoala zirudian proba ikaragarria eroan al izan nebalako..." (Santi Onaindia)

"Ahula nintzen, hain ahula, non grazia handitzat baitaukat nire indarren oso gaitetikoa zirudien proba jasan abal izatea..." (Luis Baraiazarra)

"presque toujours je paraissais en délire disant des paroles qui n'avaient pas de sens et cependant je suis sûre de n'avoir pas été privée un seul instant de l'usage de ma raison..." (A Esk. 28^a).

"Ia beti erotuta nengoala ematen zuan, zentzugabeko itzak esaten nituan-da. Alaz ere ziur nago aldi oro neure buruaren jabe izan nintzala" (Nartziso Garate)

"Makal nengoala emoten neban beti, zentzunik ez cuken berbak esanez, eta alan be, erra-zoia ifioiz be ez nebala galduta nago" (Santi Onaindia)

"ia beti eldarnioan nengoela zirudien, zentzurik ez zuten hitzak esanez; eta hala ere ziur nago *une halez ere ez naizela egon ezaguerarik gabe...*" (Luis Baraiazarra)

"Je le sais, Jésus était là dormant sur ma nacelle mais la nuit était si noire qu'il m'était impossible de le voir, rien ne m'éclairait, pas même un éclair ne venait sillonner les sombres nuages... Sans doute c'est une bien triste lueur que celle des éclairs, mais au moins, si l'orage avait éclaté ouvertement, j'aurais pu apercevoir un instant Jésus... c'était la nuit, la nuit profonde de l'âme... comme Jésus au jardin de l'agonie je me sentais seule, ne trouvant de consolation ni sur la terre ni du côté des Cieux, le Bon Dieu paraissait m'avoir délaissée!!!..." (A Esk. 51^a).

"Badakit, Jesus an zegoan lo nere ontzitzoan. Baña gaba ain illuna zalako, ezin nuan ikusi. Etzan ifiolako argirik; ezta lañu illunak urratzen dituan tximistarenik ere. Oso tristea noski tximistaren argitasuna; baña, ekaitza erabat lertu ba-litz, unetxo batean bedere, Jesus ikusi al-izango nuan.

Gaba zan, arimako gau illuna. Jesusek Getsemaniko baratzen bezela, oso bakar sentitzen nuan nere burua, ez lurraren, ez zeruaren aldetik pozik ez nuala. Jaungoikoak bere eskutik utzita nengoala ematen zuan!" (Nartziso Garate)

"Badakit, lo egoan Jesus neure ontzitzoan, baiña gau illuna zalako ezin ikusi, ez egoan argirik arean be, tximista batek ez egian dizdizik odei baltz-illunak... Ziur asko, tximisten argia, argi tristea da; baiña, alan be, ekaitza lertu balitz bete-betean, Jesus ikusi neikean une baten... Arimearen gau sakon illuna zan... Jesus lez ortuan bere il-agiñean, bakarrik nengoan poz-izpi barik ez lurrean ez zeruan, Jainkoak bertan beera itxi ninduala zirudian!..." (Santi Onaindia)

“Badakit Jesus han zegoela nire untzitxoan lo; baina ezinezkoa zitzaidan ikustea, hain beltza zen gaua! Ezerk ere ez ninduen argitzen; oinaztargirik ere ez zetorren hodei itzaltsuak urraturik... Zalantzarik gabe oso tristea da oinaztargiaren argitasun hau; baina gutxienez ekaitza bete-betean lehertu balitz, unetxo batez ikusi ahal izango nukeen Jesus... Gaua zen, arimaren gau sakona... Baratzan hilaginean zegoen Jesusen antzera, nik *bakarririk* ikusten nuen neure burua, ez lurrean eta ez zeru aldean inolako pozik aurkitu gabe. Jainko Onak bertan behera utzi ninduela zirudien!!!...” (Luis Baraiazarra)

“*Allons... Allons... Vous entrez si le Bon Dieu le veut...* (Son accent avait quelque chose de si pénétrant et de si convaincu qu'il me semble encore l'entendre)” (A Esk. 63^a).

“Tira, tira; Jaungoikoak nai badu sartuko zara. Bere itz-egikeran ba-zan barru-barruraraño sartzen zan zerbait, uste oso-osoaz esana. Oraindikan ere berari entzuten nagoala deritzait” (Nartziso Garate)

“Tira... tira... Sartuko zara, Jainkoak nai badau!... (Beraren itza ain zan sarkorra ta erabagitsu, oindiño entzuten nagoala uste dot)” (Santi Onaindia)

“Tira!... Tira!... Sartuko zara, Jainko Onak nahi badu!...” (Haren hitz-doinua hain zen sarkor eta barrukoa, non orain ere entzuten nagoela iruditzen baitzait)” (Luis Baraiazarra).

“*Écoutez: en m'en allant je pensais que c'était fini, je me disais: 'Je vais aller trouver notre Mère et lui dire que je n'irai plus avec ma S^r Th. de l'Enf. Jésus'*” (C Esk. 24^a).

“Begira: emendik joan nintzanean, uste nuan gu bion arteko ar-emanak betiko bukatuak zirala, eta nere baitan onela nion: Ba-noa Ama Nagusiaren billa, eta esango diot geiago ez noala ni Aur Jesus'en Teresa Aizparengana” (Nartziso Garate)

“Entzun: joan nintzancan, nik uste, amaitu da esaten neban: gure Ama ikustera noa Ume Jesus'en Teresa Aizteagaz ez nazala biurtuko, esatera” (Santi Onaindia)

“Hara: alde egiterakoan amaitu dela pentsatu nuen, eta neure baitan esaten nuen: “Gure Amaren bila joango naiz eta neure ahizpa Teresa Jesus Haurrenarekin gehiago ez naizela joango esango diot” (Luis Baraiazarra)

Adibide gisa, aski dela uste dut. Ez dugu iruzkin zehatzagorik egin nahi, itzultzailea eta iruzkingilea pertsona bera izanik, ez baita itxurazko azterketa mehegiatan barnerraztea... Dena dela, besterik gabe ere, argi nabari dira estiloak, euskara bera: aurreko bi kasuetan euskalkietan idatziak (Nartziso Garatek gipuzkeraz eta Santi Onaindiak bizkaieraz) eta gurea euskara batuan. Beste ezer esatekotan, hauxe gehituko nuke soilik: Santi Onaindiaren itzulpenari buruz kritika serio eta sakonik nahi duenak irakur dezala Andoni Oleak bere egunean idatzi zuen idazlana (*Karmel* aldizkarian 1991-3; 39-42). Nartziso Garateren itzulpenari maisu-lana deritzo Lino Akesolok... Ni ez naiz nor hori ukatzeko. Atseginez irakurtzen da, erdal kalkorik edo euskagaiztorik ez du erabiltzen inoiz ere, baina batzuetan testu originalari bete-betean erantzuten ez dion ustea dut. Originalleko pentsamenduari begira, euskaraz albait ondoen esatera jotzen du; baina batzuetan esaldiak gehitu egiten ditu eta noibehinka murriztu ere bai...

IV. Teresa Lisieux-koari buruzko idazlanak

A.Martinek, Markinan, 1923an, Teresari buruz egin zuen lehenengo argitalpenetik (liburuxka bat), Markina Teresari buruzko ekintza literarioaren erdigune bihurtu den 1996ra arte, 73 urte igaro dira. Urte hauetan, aldizkarietan idatzitako idazlan labur batzuk alde batera utziz gero, nahiko lan gutxi egin izan da euskaraz; hala ere egoki izango da haiek ere agertzea, Santari buruzko lanen ikuspegi orokor bat izateko...

Aita Martinek argitaratutako bi liburuxkak, 20 eta 12 orrialdekoak, 1923 eta 1925ean, 76 orrialdeko liburutxoa santa berriari bederatzurrrena aurkezten 1925ean (Josulagun batek idatzia eta Kardaberaztarrek itzulia), eta Anastasio Albizuk idatzitako Teresaren bizitza 1994an... Hauek dira orain arte euskaraz argitaratu diren liburu guztiak. Ia produkzio guztia *Karmengo Argia* eta (*Karmengo egutegia*-) *Karmel* aldizkari ahizpek argitaratu dutenera mugatzen da... *Karmengo Argiak*, adibidez, bizirik iraun zuen 6 urteetan, idazlan ugaritan, guztiz 115 orrialde eskaintzen dizkio gutxi gorabehera, eta honen ahizpa den beste aldizkariak 37 orrialde.

Erabilitako gaiak nahiko antzekoak dira eta estilo erraz eta herrikoian idatziak; lehenengo aldizkaria herrikoia zela izan behar da kontuan; horrela idazlantxo ugari dago Teresaren bizitzari buruz, haren doktrinari buruz Santi Onaindiak idatzita, baita haren-gandik hartutako graziak kontatuz jasotzen diren hainbat berri ere etab, *Karmelen*, argitaratu diren idazlan urrietan, Teresaren bizitzari sarrera antzeko bat dator, euskaraz agertutako Teresaren testuei buruzko kritika, bereziki azken urteotan egina.

Teresari eskainitako bost olerki ere aurkitzen ditugu: lau Aita Lontzirenak dira (Pedro Ormaetxea Aldana), eta bat Santi Onaindiarena... *Oleri* (1967) aldizkarian ere aurkitzen dugu olerki bat: egilea Eduardo Carranza, baina hemen Ion Beiztegik egindako itzulpenean dator...

Eta euskarazko produkzio honetan gehien nabarmendu diren arteen artean hauek aipatu behar ditugu: Santi Onaindia, Martin Uriarte, Andoni Olea, eta Anastasio Albizu, oraintsu argitaratutako bere liburua dela eta; 1996ko urte honetan burututako lan honi aipamen berezia zor zaio.

V. Teresa Lisieux-koaren euskarazko idazlanen *Bibliografia*

I. Teresaren idazlanak:

a. Eskuizkribuak:

- Aita Honorio: *Teresatxo deunaren bizitza*. Markinako Karmeldarren artxiboan koadernaturiko kopia batzuk gordetzen dira. Liburukitxoak (28'5 x 20'5 cm) IV + 175 orr. ditu.
- Izengabekoa: 32 folio txikitik (16'2 x 22'5 cm) graturik; *Historia de un alma*-ren lehen orrialdeak dira.
- Aita Sebastian: *Historia de un alma*-ren eskuidatzi handi batzuk oraindik zirriborroan; testu berbera makinaz idatzitako folioetan ere aurkitzen dugu.
- Aita Narkis: "JESUS AUERRAREN TERESA DONEA: *Eskuidatzi Autobiographikoak (Anima baten Kondaira)*". (eskuidatziak 197 folio ditu, 31'5 x 21'5 cm). A.Linok, kopietariko batean, izenaren eta izenburuaren artean hau idatzi zuen eskuz: "Bere bizitzaren berri emanaz Teresak idatzitako iru eskutiz euskeraz jarrita"; eta beste kopia batean hau tartekatatu zuen: "Bere bizitzaren berri emanaz Teresak idatzitako eskutitzak", eta izenburuaren ondoren gehitu zuen: "Aingeruen Narkis Aita Karmeldarrak (Jose Antonio Garatek) euskeratuta".
- Aita Santiago Onaindia: [*Olerkiak*].
- Aita Sebastián: [*Azken Elkarrizketak*]; zirriborrea (32'5 x 22 cm) guztiz 75 orrialde daude idatzirik, ama Ainesen idazkiari dagokiona delarik.
- Aita Sebastian: [*Azken Elkarrizketak*] *Teresa donea Jesus Aurrarena, Aolku eta oroitzak*; Zelinaren, Santaren ahizparen koadernoari dagokiona da (19'5 x 13'5 cm); 60 orrialde txiki ditu idatzirik.
- Aita Sebastian: [*Azken Elkarrizketak*] beste koaderno handi bat (35'5 x 26'5 cm.) 13 orrialde idatzirik dituela.

b. Argitaratutako lanak:

- TERESA JESUS HAURRARENA (TERESA LISIEUX-KOA), *Aingeru zaindariari otoitza*, Karmengo 4 (1934,46.zk.) 315. (Eusk.: Barbin).
- TERESA JESUS HAURRARENA, *Gaurko nire abestia*, Renacer 4 (1936,otsaila,29.zk.) 4-5. (Eusk.: Teresatxo D'n Sabin A.). = Karmel 1995-3, 110-112. (Eusk.: Sabin Gerrikaetxebarria).
- TERESA JESUS HAURRARENA, *Arima baten istoria*, Bilbao, 1991, 318 or. (Itzultzaile: Aita Onaindia).

TERESA JESUS HAURRARENA, *Eskuizkribu autobiografikoak (Euskaraz-Frantsesez)*, Markina-Xemein, 1996, 439 orr.

TERESA JESUS HAURRARENA, *Idazlan guztiak*, Markina-Xemein, 1996, 1223 orr.

TERESA JESUS HAURRARENA, *Maitasunez bizi!...*, Karmel 1996-1, 100-108. (Eusk.: Luis Baraiazarra).

TERESA JESUS HAURRARENA, *Nire Ama maiteari haurtzaroko Aingeru Eder izan nuenari*, Karmel 1996-2, 91-93. (Eusk.: Luis Baraiazarra).

TERESA JESUS HAURRARENA, *Nire gaurko kanta*, Karmel 1995-3, 104-109. (Eusk.: Luis Baraiazarra).

TERESA JESUS HAURRARENA, *Nire poztasuna!*, Karmel 1996-1, 108-112. (Eusk.: Luis Baraiazarra).

TERESA JESUS HAURRARENA, *Santu baten Alabaren otoitza*, Karmel 1996-1, 94-100. (Eusk.: Luis Baraiazarra).

TERESA JESUS HAURRARENA, *Zergaitik maite zaitudan, oi Maria!*, Karmel 1996-2, 96-109. (Eusk.: Luis Baraiazarra).

TERESA JESUS HAURRARENA, [*Autobiografia*], Karmel 1957-2, 7-8; 1957-3, 10-11.

2. Teresari buruzko idazlanak

ABASOLO, Anbortsi, *Teresatxo deuna*, Karmengo Argia 1 (1931,1.zk.) 21-22; 1 (1931,3.zk.) 88-89.

ABASOLO, Anbortsi, *Teresatxo gurena*, Karmengo Argia 1 (1931,5.zk.) 143-144.

AKESOLO, Lino, *Aita Narziso, Lisleux-ko Teresa donearen euskeratzaille*, Goiz-Argi 15 15 (1974, 189.zk.) 6. (*Idazlan guztiak*, I, 620-622).

AKESOLO, Lino, *Buroja eta Lisleux-ko Teresa donea*, El Diario Vasco 41 (1974, 12.101.zk.) Igandeeke eranskina, 9. (*Idazlan guztiak*, II, 1148-1149).

ALDAKAITZ, *Teresatxo donea Lourdes' en*, Karmel 1958-2, [0a-0b].

AMEZTI, *Mixiño ta mixiolari guztien zaindari*, Karmengo Amaren Egutegia (1954) 101-102.

ALBISU AYERDI, Anastasio, *Lisleux'ko Teresatxo donea' ren bizitza...* 1994, 48 orr. (Frantzesko liburu honen itzulpen nahiko librea da: Marc JOULIN, *Petit vie de Thérèse de Lisleux*, Paris 1988, 123 orr.)

CARRANZA, Eduardo, *Amalaukoa Teresa'ri*, Olerti 9 (1967,3-4.zk.) 94. (Eusk.: Ion Beiztegi) (Olerkia).

DOROTEO, (Aita), *Aur Jesus' en Teresatxo Deunari Bederatziurrena*, in: *Karmen'go Amaren Esku-liburua*, Zornotza, 1931, 268-280.

ETXEBARRIA, Pio, *Lisieux' en 1934' an*, Karmengo Argia 5 (1935,49-50.zk.) 21-23.

ETXEBARRIA, Pio, *Teresatxo deuna' ren guztitasuna*, Karmengo Argia 1 (1931,9.zk.) 273-275; 1 (1931,10.zk.) 311-313.

ETXEBARRIA, Pio, *Teresatxu deuna*, Karmengo Argia 3 (1933,43.zk.) 289-293.

Jesus Aurraren Sorora Teresa'txo Zoriondunari bederatzziurrena, heragandik gogozko aurtasuna iristeko Egunoroko otoiz-gai eta Sorora beraren itz-xorta batzuekin Jesus' en Lagundiko A. batek egina, Gazteiz'ko Seminarium Conciliare'ko Kardaberaztarrak euskeratua. Zornotza, 1925, 76 or.

Karmel-lorea, Karmel 1 (1951) 26.(Olerkia)

KEPA, *Teresatxo deuna ta Aita santuak*, Karmel 1959-1, 7.

KEPA, *Zelina il da*, Karmel 1959-3, 7-8.

LEON, (Aita), *Jesus Aurraren Teresatxo doatsuari Bederatzziurrena*, in: *Karmel (Otoitz-Liburua)*, 154-159. (Makinaz idatzitako liburuki handia; lerro-tarte estuctan idatzitako 308 folio dira).

OLEA, Andoni, *Lisieux-ko Teresa*, Karmel 1991-3, 55-67.

OLEA, Andoni, *Teresa Lisieuxkoa*, Karmel 1996-1, 66-71.

OLEA, Andoni, *Teresa Lisieuxkoaren familia*, Karmel 1996-2, 57-64.

ONAINDIA, Santiago, *Teresatxo deuna*, Karmengo Argia 1 (1931,11.zk.) 339-341; 1 (1931,12.zk.) 370-372; 2 (1932,13.zk.) 16-18; 2 (1932,15.zk.) 82-84; 2 (1932,18.zk.) 164-166; 2 (1932,20.zk.) 230-232; 2 (1932,21.zk.) 261-263; 2 (1932,23.zk.) 333-335; 3 (1933,25.zk.) 20-22; 3 (1933,27.zk.) 74-75; 3 (1933,31.zk.) 210-213; 3 (1933,34.zk.) 298-300; 4 (1934,37.zk.) 24-25; 4 (1934,41.zk.) 138-140; 4 (1934,45.zk.) 262-263; 4 (1934,46.zk.) 297-299; 5 (1935,51-52.zk.) 52-53; 5 (1935,53.zk.) 100-101; 5 (1935,58.zk.) 249-252; 6 (1936,63.zk.) 79-81.

ORMAETXE, Lontzi (Aba), *Teresatxu deunari*, Karmengo 3 (1933,34.zk.) 305. (Olerkia)

ORMAETXE, Lontzi (Aba), *Teresa'txu deunari*, Karmengo 5 (1935,58.zk.) 237. (Olerkia)

ORMAETXE, Lontzi (Aba), *Teresa'txuri eskaria*, Jaungoiko zale 13 (1924,229.zk.) 40. (Olerkia).

Santa Teresa Lisieuxkoa (1873-1897), Bilbo, 1996, 52 orr. (Ana Urkizak frantsesetik itzulia).

TERESATXU DEUNAREN SABIN ANAYA, *Udazkeneko "Loratxua"*, Karmengo Argia 3 (1933,34.zk.) 310-312.

THERESIUS, *Teresatxo donea. Zergaitik ain maitatua?*, Karmengo Amaren Egutegia (1953) 88-90.

URIARTE, Martin, *Bederatzziurrena Ume Jesus'en Teresatxu zoriundunari*. Bilbao, 1923, 20 orr.

URIARTE, Martin, *Karmengo Andra Maria' ren eta Teresatxu deuna' ren etxeko Ikerpen mixiolaria*. [Bilboa], 1925, 12 or.

URIARTE, Martin, *Larrosazko euria*, Karmengo Argia 1 (1931,1.zk.) 20; 1 (1931,2.zk.) 53-54; 1 (1931,3.zk.) 85; 1 (1931,4.zk.) 114-115; 1 (1931,5.zk.) 148; 1 (1931,6.zk.) 178-180; 1 (1931,7.zk.) 207-210; 1 (1931,8.zk.) 241-242; 1 (1931,9.zk.) 271-272; 1 (1931,10.zk.) 306-308; 1 (1931,11.zk.) 334-335; 1 (1931,12.zk.) 366-367; 2 (1932,13.zk.) 19-21; 2 (1932,14.zk.) 45-46; 2 (1932,16.zk.) 115; 2 (1932,17.zk.) 142-143; 2 (1932,23.zk.) 342; 3 (1933,28.zk.) 121.

URKIZA, J., [Zuz.], *Teresa Lisieux-koa (1873-1897). Bere heriotzaren lehenengo mendeurrenean (1897-1997)*. Markina-Xemein 1996, 410 orr. (Karmel Sorta - 9).

Ik. Karmel 1996-3/4-ko 17 artikulua (hau da, Karmel Sorta-9 liburu honetakoak).

J.Urkiza - L.Barañazarra